

LITERATURA. Katalanezko literaturak XIX. mendean izandako idazlerik handiena izan zen, aditu askoren ustetan

Jacint Verdaguer poetari buruzko erakusketa zabaldu dute Vic-en

Badalonan haren omenezko ekitaldiak egingo dituzte gaur, hil zela 100 urte direla gogoan

Agentziak | VIC / BADALONA

Duela 100 urte, 1902ko ekainaren 10ean hil zela gogoratuz, Jacint Verdaguer kataluniar poetari buruzko erakusketa zabaldu zuten atzo Vic hirian. *Verdaguer. Vic un geni poètic* du izenburu erakusketak, eta Verdaguerrekin zerikusia duten 158 elementuak osatzen dute: dokumentuak, artelanak, gauzakiak... Bardalonan ere hainbat ekitaldiren bidez omenduko dute, gaur, Verdaguer.

Hogeitaka museotatik bilduak dira Vic-eko Larruaren Artearen Museoan zabaldutako erakusketan paratu dituzten elementuak. Francesc Codina, Narcís Comadira, Manuel Jorba eta Llorenç Soldevila apailatu dute erakusketa, poetaren gertuko iturriak zeintzuk ziren erakutsi nahia gidari harturik.

Verdaguerren liburutegiko liburuak, aldizkariak eta artelanak dira, izan ere, erakusketaren parte bat. Artelanen artean Santiago Rusiñol, Joaquim Mir, Tomas Moragas eta Claudi Lorenzalerenak daude, beste batzuen artean. Horretaz gain, haren hainbat eskuizkribu ere bada erakusketan.

Gaur Badalonan egingo di-



Jacint Verdaguerri buruz Vic hirian zabaldu duten erakusketaren ikuspegi bat.

ren ekitaldiak Verdaguer Urteko Herritar Batzordeak antolatu ditu, Badalonako Udalaren laguntzaz. Hilobian lore eskaintza egingo diote poetari goizean, eta 13:00etan omenezko ekitaldia egingo dute Jacint Verdaguer kalean: poesia irakurraldia, plaka baten azaleratzea

eta *El Cant dels Ocells*-en emanaldia, Joan Antoni Pich-en eskutik. Arratsean, berriz, dantza emanaldiak egingo dira, festa giroan.

Jacint Verdaguer (Folgueroles, 1845-Vallvidrera, 1902) katalanezko literaturak XIX. mendean izan zuen idazlerik handiena da, aditu askoren iritziz. Ikuspegi katoliko eta kontserbadore batetik, Renaixanca mugimenduarekin bat egin zuen. Hainbat literatura genero landu zuen: poesia epikoa, poesia lirikoa, prosa narratiboa, kazetaritza, bidaia literatura...

Klasikoen zalea

Vic-eko seminarioan egindako ikasketetan maitasun handia hartu zien idazle klasikoei. Orduntxe ekin zion idazteari ere.

Oso eragin handia izan du Verdaguerren lanak, eta haren

JARRERA

Reinaxenca mugimenduarekin bat egin zuen, ikuspegi katoliko batetik

poemetako asko musikatu dituzte musikari ezagunek; Nicolau, Morera, Milletek eta Fallak, esate baterako.

L'Atlantida eta *Canigó* dira Verdaguerren lanik ezagunenak; erromantizismo handiko poema epikoz osatuak dira biak ala biak. *Idil lis i cants mistics*, *Pàtria*, *Montserrat*, *Flors del Calvari*, *Aires del Montseny*, *Dieters d'un pelegrí a Terra Santa* eta *Excursions i viatges* dira Verdaguerrek idatzitako beste liburu ezagun batzuk.

Abentura bidaien ildotik idatzi du azken nobela Santiago Gamboak

E. Ezkerra | BILBO

Beijinera helburu jakinik gabe doazen lau gizon, konplikatuz doan istorioa, intriga, umorea... Halako elementuak nahasten ditu Santiago Gamboak *Los impostores* azken liburuan. Gaur egun Hegoamerikako nobela berriaren idazle interesgarrienetako bat denak aurreko lanetatik nolabait askatu nahi izan dela dio, eta lurralde urrutetan bilatu gertuko errealtateak eskaintzen ez diona. «Argi nuen abenturak eta bidaiak nahasten dituen liburu horietako bat idatzi nahi nuela: gurean hain ezaguna izan ez, baina Estatu Batuetan ohikoa den abentura istorioa —munduan zehar arazorik gabe mugitu den inperioa izanik normala da genero hori gehiago landu izana—. Orain arte Hegoamerikako errealtatearekin kezkatuegi egon naiz, eta banuen beste esperientzia batzuk probatzeko gogoia».

Juan Goytisoloren esaldi bat gogora ekarriz —«gizakien sustraiak oinak dira, eta mugimendua behar dute»—, literarioki Beijinera abiatu izanak hainbat konturen gainean gogoeta egitea ahalbidetu diola azaldu du Kolonbiakoak, hala nola gizakiok besteen aurrean erabiltzen ditugun moztaroen zioa, edo bizitzari berari diogun beldurra eta hark eginarazten diguna.

Errealismo magikotik askatu

Gamboa oso kritikoa da inguruan duenarekin, kritikoa kide den nobela berriko mugimendua bezala. Garcia Marquez eta Alejo Carpentierren errealismo magikoarekin amaitzeko garaia dela uste du, «orain arte Hegoamerikaz islatu den irudi erdi exotiko erdi paganoa baino harantzago dagoe-lako lurraldearen benetako errealtatea».

«Errealismo magikoa Garcia Marquezen bera- ren kontra itzuli da. Gaur egun etiketa hori literaturak jakin bati lotzen zaio, kasik irain bihurtu da».

ANDOAIN NAFARROA PLAZAN DOCTOR DESEO



EKAINAK 15 • ORDUA: 23:00

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. URIGAIN KULTURA ETXEA

PABLO SASTRE

Tximi eta Saki gazteak Marokora doaz kamioi batean jendea ekartzeko asmotan

LEUROPA

nobela - Joseba Jaka III. Literatur Beka

www.susa-literatura.com